



Bermeoko Mugikortasun eta Aparkaleku Plana

Proposamenak



LEBER
Planificación
e Ingeniería, S.A.



2009ko maiatza



■ Aurkeztutako proposamenen sintesia.....	4
■ Diagnosiaren laburpena, joerak eta gomendio estrategikoak	5
■ Trafikoaren eskema: Edukierak/Eredua/Proposamenak	11
■ Aparkalekuaren kudeaketa	39
■ Zamalanen kudeaketa	46
■ Alde Zaharraren kudeaketa	50
■ Garraio publikoa.....	59
■ Bizikletaren eginkizuna	62
■ Esparru publikoak	67
■ Eraldaketa-prozesua	86
■ Ebaluazio-adierazleak.....	95
■ Eranskina: Lasaitzea Irizpide orokorrak.....	111

- Txosten hau Bermeoko mugikortasun iraunkorrari buruzko azterketaren bigarren zatiari dagokio. Bertan, gauzatu beharreko jardueren proposamenak jasotzen dira.
- Lehenengo zatia diagnosiari dagokion aurrez egindako txostenean jasota dago. Diagnosi hori txosteneko proposamenen oinarri da, eta horrez gain, etorkizunean trafikoari eta mugikortasunari lotuta egin beharreko jarduerak jasotzen ditu, plangintzatutako bide berriak kontuan hartuz.

- Txostenak puntu hauek jasotzen ditu:
 - Diagnosiaren laburpena eta mugikortasunaren etorkizuneko kudeaketarako lan-gomendio estrategikoak.
 - Trafikoa lasaitzeko eta bide-segurtasunerako irizpideak.
 - Lasaitzeko proposamen zehatzak.
 - Aparkalekua kudeatzeko politika.
 - Esparru publikoak kudeatzeko irizpide eta proposamenak.

- Hemen datozen proposamenek diagnosi-txostenean antzemandako elementu kritikoak ebazten ahalegintzen diren hainbat aukera aurkezten dituzte. Besteak beste, Zubiar tar Kepa – Prantzisko Deuna ardatzaren hobekuntza, egun dauden hiru semaforoak koordinatuz eta orain dauden semaforoen zikloak zabalduz.
- Bermeoko bide-sistemako hainbat puntutan trafiko-eskema berriak proposatu dira, hala nola Tala eremuan, ibilbideari segurtasuna ematen eta hura hobetzen ahalegintzen dira.
- Bestalde, Alde Zaharra oinezkoentzat jartzeko kudeaketa-proposamenak ere aurkeztu dira; horretarako, eguneroko logistika-eragiketarako ordutegiak finkatuz.
- Aparkalekuei dagokien atalean egoiliarrentzako aparkalekuak kokatzeko hainbat proposamen egin dira, baita dagoeneko badauden aparkalekuetako eta proiektuan daudenetako (Itsas-Gane eta San Andres parkinak) kudeaketa hobetzeko proposamenak ere.
- Garraio publikoa eta bizikleta ere ez dira hausnarketa estrategiko horretatik at geratu. Herria muturretik muturrera lotzen duen bidegorri-sarea proposatu da.
- Azkenik, Bermeoko esparru publikoak hobetzeko hainbat gomendio nabarmentzen dira. Ekipamendu-horniduraren hobekuntza eta espaloien egokitzapena zirkulazio seguru eta erosoagoa bermatzeko.

Bilakaera: biztanleria eta motorizazioa





Bermeo

Azken 20 urteetako bilakaera:

- Biztanleria % 7 murriztu da.
- Familia kopurua % 23 hazi da.
- Eta... ibilgailuak % 91 areagotu dira!!!
- Mila biztanleko automobil ratioa 1986an 190 izatetik 2008an 398 izatera igaro da.
- Bizkaian 1986an 242 izatetik 2006an 414 izatera pasatu zen.

Bilakaera sozio-ekonomikoa





Hemen atxikitako grafikoetan Bermeoko familia eta biztanleen kokapena azaltzen da orogarrri gisa.

- Biztanleria: 17.032
- Familiak: 6.475

Batez besteko balioa 2,63 da. Bizkaiko batez bestekoa baino pixka bat baxuagoa da; 2006an 2,7 zen.

Bilakaera sozio-ekonomikoa




Atxikitako grafikoetan oroigarri gisa azaltzen dugu familia bakoitzeko automobilen eta Bermeon eskaintako lanpostuen banaketa.

- Automobila/Familia: 1
- Lan eskaintza: 4.338


Familia bakoitzeko ibilgailuen batez bestekoa 1,3 da 2008an; Bizkaian, berriz, 1,4 da.

Mugikortasun orokorraren bilakaera



- **Bermeo**
- Garraioen Partzuergoak 1997an egindako eta Eusko Jaurlaritzak 2002an egindako inkestak aztertu ditugu.
- 1997koan Bermeoko 69 familiako lagina eta 2002koan 75 familiako lagina agertzen da, hurrenez hurren.
- Lanegunean familiako kideek egindako bidaien egunerokoa jasotzen du.
- Lan- edo ikasketa-arrazoiak ez diren arrazoiengatik egindako 5 minutu baino gutxiagoko bidaiak ez dira kontuan hartzen.
- Bermeon egiten diren bidaia guztien % 73 oinez egiten dira. Herri barruko mugikortasuna areagotu dela ikus daiteke, batez ere, ibilgailu pribatuan.

Etxebizitzari buruzko politika





2009ko maiatza

Bermeoko Mugikortasun eta Aparkaleku Plana. Proposamenak. 2. azterketa.

- Mugikortasunaren arrazoi nagusia etxebizitzaren urruntasuna da, lantegi edo ikastetxeari dagokionez.
- Proposamenaren azken orrialde hauetan **"bizi-zikloko etxebizitzaren"** alde agertu nahi genuke. Hau da, erdi-mailako pertsonaren bizitzako espazio-beharretara eta gaitasun ekonomikoko etapetara egokitzen den etxebizitza.
- Horren ezean, migrazioak gertatzen dira herriguneetatik kanpora eta, ondorioz, ibilgailu motordunen beharra eskatzen du, horrek dakarren deserrotze soziala murriztu gabe.



Enpleguari buruzko politika



- Bermeoko aktibo nagusia oinezkoen mugikortasuna da. Hein handian barruko mugikortasunari zor zaio eta, beraz, zaindu egin behar da. Hori EUSTATEN 2001eko azken datuetatik aterata dago.
- Bermeo barruko lan-mugikortasuna mantendu egin da 2001 arte. Hala ere, kanpo-mugikortasuna ordura arte azkarrago areagotu da barrukoa baino.
- Herriko mugikortasuna babesteko eta haren kalitatea sustatzeko, beharrezkoa da biztanle aktiboek dagokionez kantitate eta kalitatezko lan-eskaintza sustatzea eta, gainera, zerbitzuko lanpostuak herrigunean kokatzea.



Trafikoaren eskemak:

Edukierak


Trafikoaren eredu mikroskopikoa

Proposamenak



Trafikoaren eskema: edukierak

Bermeon edukierei buruz egindako kanpaina.





BERMEOKO edukierak




Trafikoaren eskema: edukierak

- 1. edukiera
- Sarbidea Mundakatik




Trafikoaren eskema: edukierak


- 2. edukiera
- Batzokiaren ate aurrean



Trafikoaren eskema: edukierak

4. edukiera





5. edukiera


Trafikoaren eskema: edukierak

10. edukiera




Trafikoaren eskema: edukierak

11. edukiera




0:25 0:30 0:35 0:40 0:45 0:50
Orduak




0:25 0:30 0:35 0:40 0:45 0:50
Orduak

Trafikoaren eskema: edukierak

- 12. edukiera
- Sarbidea Sollubetik.




0:25 0:30 0:35 0:40 0:45 0:50 Orduak



0:25 0:30 0:35 0:40 0:45 0:50 Orduak


Trafikoaren eskema: edukierak

- 15. edukiera
- Hilerriaren eremua.




Trafikoaren eskema: edukierak

- 16. edukiera
- Kiroldegirako sarbidea.




0:25 0:30 0:35 0:40 0:45 0:50 Orduak




0:25 0:30 0:35 0:40 0:45 0:50 Orduak

Trafikoaren eskema: edukierak

- 17. edukiera
- Institutuko eremua.




0:25 0:50 1:15 1:40 2:05 2:30 2:55 3:20 3:45 4:10 4:35 5:00 5:25 5:50 6:15 6:40 7:05 7:30 7:55 8:20 8:45 9:10 9:35 10:00 10:25




0:25 0:50 1:15 1:40 2:05 2:30 2:55 3:20 3:45 4:10 4:35 5:00 5:25 5:50 6:15 6:40 7:05 7:30 7:55 8:20 8:45 9:10 9:35 10:00 10:25

Trafikoaren eskema: Alde Zaharra ixtea



- Laster Bermeoko alde zaharra ibilgailuentzako itxikoenez, hura zeharkatzen zuten autoak Zubiar tar Kepa ardatzera pasatuko dira. Hori dela eta, ahal den heinean, gorriz adierazitako ardatzeko atzerapenak saihestu eta hobetzeko hainbat neurri planteatzen dira.
- Bestalde, Bermeoko saihesbidea ez da epe laburrean amaituko, obrak aurten hasiko direla aurrez ikusi baita. Hortaz, denbora-tarte batean bat egingo dute alde zaharra itxita egoteak eta saihesbidea amaitu gabe egoteak.

Trafikoaren eskema: eredu mikroskopikoa



- Egungo egoera eta alde zaharraren itxiturarekin sortuko dena aztertzeko, eta proposatutako neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko, Zubiartar Kepa, Segundo Ispizua eta Prantzisko deuna ardatzaren eta haien inguruko kaleen eredu mikroskopikoa garatu dugu.

- Atxikitako grafikoak erabilitako ereduaren irudia agertzen du.



Trafikoaren eskema: eredu mikroskopikoa



- Eredu mikroskopikoan adierazitako ibilgailuen kargak gorriz adierazitako puntuetan egindako grabaketetatik ondorioztatu dira. Grabaketak puntu horietatik igarotzen den ibilgailuen kopurua zehazteko erabiltzeaz gain, haietan gertatzen diren mugimenduak ezagutzeko erabili dira.
- Grabaketak goizko (07:30-09:00) eta arratsaldeko (18:00-19:30) puntako orduetan egin ziren arren, eredu mikroskopikoak arratsaldeko puntako ordu bete irudikatzen du (bolumen handienekoa), hori baita ordurik gatazkatuena, oinezkoen eta autoen arteko elkarreragina dela eta.

Trafikoaren eskema: eredu mikroskopikoa




Alde zaharreko itxituraren egoera

- Egungo egoeran alde zaharra itxita agertzen den eredu mikroskopikoa finkatzea iruditu zaigu egokiena.
- Egungo egoera hori finkatzeko hainbat hipotesi hartu dira kontuan:
 - Lamera eremutik irteten ziren 360 ibilgailuetatik 100 soilik geratzen direla kalkulatu da (portu eta Lamera inguruko aparkalekuak). Gainerako 260 ibilgailuak San Martin eta Esparru eremuetatik irteten dira.
 - Arresira Atela aldetik sartzen ziren 70 ibilgailuak Esparruko igoerara igarotzen dira.
 - Alde zaharra ixteak ardatzeko intentsitatea areagotu eta, ondorioz, egungo egoera zailtzen du.
- Arratsaldeko puntako orduetako edukierak eredu mikroskopikoan sartutako ibilgailu kopurua adierazten du.

Trafikoaren eskema: eredu mikroskopikoa

Alde zaharreko itxituraren egoera



		PM
		Egungoal
Batez besteko ilara (m)		2
Gehieneko ilara (m)	1	63
Geldialdi kopurua		122
Batez besteko ilara (m)		18
Gehieneko ilara (m)	2	102
Geldialdi kopurua		472
Batez besteko ilara (m)		1
Gehieneko ilara (m)	3	51
Geldialdi kopurua		62
Batez besteko ilara (m)		18
Gehieneko ilara (m)	4	115
Geldialdi kopurua		277
Batez besteko ilara (m)		22
Gehieneko ilara (m)	5	82
Geldialdi kopurua		181
Batez besteko ilara (m)		2
Gehieneko ilara (m)	6	53
Geldialdi kopurua		42
Batez besteko ilara (m)		15
Gehieneko ilara (m)	7	85
Geldialdi kopurua		229
Batez besteko ilara (m)		48
Gehieneko ilara (m)	8	134
Geldialdi kopurua		703
Batez besteko ilara (m)		4
Gehieneko ilara (m)	9	63
Geldialdi kopurua		217
Batez besteko ilara (m)		9
Gehieneko ilara (m)	10	61
Geldialdi kopurua		167
Batez besteko ilara (m)		59
Gehieneko ilara (m)	11	127
Geldialdi kopurua		1.013
Batez besteko ilara (m)		1
Gehieneko ilara (m)	12	17
Geldialdi kopurua		25
Batez besteko ilara (m)		22
Gehieneko ilara (m)	13	84
Geldialdi kopurua		498
Batez besteko ilara (m)		2
Gehieneko ilara (m)	14	48
Geldialdi kopurua		105

- Proposatutako egoera bakoitza aztertu eta alderatu ahal izateko, atxikitako grafikoan islatzen diren hainbat kontrol-puntu finkatu dira; horiek auto-ilararen batez bestekoak, gehieneko auto-ilarak eta haietan kontatutako geldialdiak adieraziko dizkigute.
- Metrotan adierazitako batez besteko auto-ilarak denbora-tarte bakoitzeko auto-ilara neurtzen du eta, balio horretatik abiatuta, batez besteko aritmetikoa kalkulatzen du.
- Metrotan adierazitako gehieneko auto-ilarak denbora-tarte bakoitzeko auto-ilara neurtzen du eta une horretako maximoa ateratzen du.
- Geldialdi kopurua: ibilgailua ilaran sartzen denean (10 Km/h baino gutxiagoko abiadura)




Proposatutako egoerak

- Ereduan antzemandako atzerapenei eta herriko puntu jakinetako auto-ilareei erantzuna emateko, eredu mikroskopikoaren bidez hainbat egoera proposatu eta aztertu dira:
- **Egunoa + Koordinazioa:**
 - Eguno hiru semaforoak aldi berean funtzionatzeko koordinatu dira. Arratsaldeko puntako orduan 75 segundoko zikloan funtzionatzen dute (45" + 22") eta egunean zehar eskaeraren arabera, ziklo berarekin.
- **Egunoa + Koordinazioa + Biribilgunea:**
 - Aurrekoaren antzeko egoera, baina Kasinoko biribilgunea Askatasun bidea, Lamera eta portuko zonaldera sartzeko soilik erabiltzen da. Ardatz nagusiko trafikoak albo batera uzten du biribilgunea.
- Baldintzarik okerrenetan garatutako ereduaz aztertu eta haren sendotasuna frogatzeko, udako bi egoera garatu dira. Egoera horietan Sollubetik datozen ibilgailu kopuruaren areagotzea jaso da, Mundaka eta Sukarrietako udako etxebizitzetako egoiliarrek eragindako trafikoa simulatzeko.
- **Uda + Koordinazioa:**
 - Koordinatutako egungo egoeraren antzekoa, baina Sollubetik jaisten diren 200 ibilgailu gehiagorekin.
- **Uda + Koordinazioa + Biribilgunea:**
 - Uda + Koordinazioa egoeraren antzekoa, baina Sollubetik jaisten diren 200 ibilgailu gehiagorekin.
- Txostena aztertutako egoera azaltzen duten hainbat bideorekin osatu da eta DVDan jasota daude.


Trafikoaren eskema: biribilgunearen aldaketa

SEMAFOROEN KOORDINAZIO EGOERA

- Semaforoaren egungo zikloak zabaltzea eta koordinatzea ezinbestekoa da Zubiar - Prantzisko deuna ardatzeko ibilgailuak arinago joan daitezen.
- 75"-ko zikloa
 - Autoentzako berdea: 45"
 - Oinezkoentzako berdea: 22"



Trafikoaren aldaketa: biribilgunearen aldaketa



BIRIBILGUNEAREN EGOERA

- Kasinoko egungo biribilgunearen aldaketen xehetasunak atxikitako grafikoan azaltzen dira.
- Ikus daitekeen moduan, Askatasun bidea – Prantzisko deunarako irteera bi erreietan egiten da. Portu aldeko irteera, aldiz, aurreratu egiten da biribilgunerantz Artxa tabernaren aurrealdeko irteera saihesteko.
- Proposamen hori onartuz gero, seinaleztapena arretaz jarri beharko litzateke, eremuko ohiko gidarientzako nekez ikusten den aldaketa baita.

Trafikoaren eskema: eredu mikroskopikoa




EMAITZAK

- Hemen atxikitako laburpen-taulan azaltzen den moduan, planteatutako proposamenei esker, Alde Zaharra ixtearen ondorioz sortutako atzerapen eta auto-ilarak eta Zubiar tar Kepa – Segundo Ispizua – Prantzisko deuna ardatzeko ibilgailuen areagotzea murrizten da; egoera horrek udan okerrera egiten du gainera.
- Txostena osatzeko DVDan jaso dira aztertutako egoerak azaltzen dituzten bideoak.

		PM				UDA	
		Egunkoa	Koordinazioa	Koordinazioa+Biribilgunea	Koordinazioa	Koordinazioa+Biribilgunea	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	129	6	
	Gehieneko ilara (m)	1	62	67	406	102	
	Geldialdi kopurua	122	114	115	1.734	267	
Batez	besteko ilara (m)	18	18	19	89	37	
	Gehieneko ilara (m)	2	102	99	102	130	
	Geldialdi kopurua	472	467	473	533	543	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	2	2	
	Gehieneko ilara (m)	3	5	49	46	55	
	Geldialdi kopurua	62	54	57	73	59	
Batez	besteko ilara (m)	18	9	0	233	22	
	Gehieneko ilara (m)	4	115	83	3	484	
	Geldialdi kopurua	277	163	16	2.806	443	
Batez	besteko ilara (m)	22	6	3	53	2	
	Gehieneko ilara (m)	5	82	66	33	133	
	Geldialdi kopurua	181	142	126	276	216	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	2	2	
	Gehieneko ilara (m)	6	53	33	39	44	
	Geldialdi kopurua	42	1	2	49	13	
Batez	besteko ilara (m)	15	19	8	83	69	
	Gehieneko ilara (m)	7	85	112	54	216	
	Geldialdi kopurua	229	251	21	503	416	
Batez	besteko ilara (m)	43	34	16	96	69	
	Gehieneko ilara (m)	8	134	133	130	137	
	Geldialdi kopurua	703	644	412	1.229	857	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	2	2	
	Gehieneko ilara (m)	9	63	54	55	59	
	Geldialdi kopurua	217	133	134	129	131	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	2	2	
	Gehieneko ilara (m)	10	6	42	32	11	
	Geldialdi kopurua	167	95	85	146	123	
Batez	besteko ilara (m)	59	3	2	54	20	
	Gehieneko ilara (m)	1	127	127	123	127	
	Geldialdi kopurua	1.013	674	262	1.003	533	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	2	2	
	Gehieneko ilara (m)	12	17	30	2	23	
	Geldialdi kopurua	25	46	4	39	45	
Batez	besteko ilara (m)	22	17	2	2	3	
	Gehieneko ilara (m)	13	84	8	76	83	
	Geldialdi kopurua	493	50	74	586	185	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	2	2	
	Gehieneko ilara (m)	14	43	46	4	53	
	Geldialdi kopurua	106	100	87	116	87	
Batez	besteko ilara (m)	2	2	2	2	2	
	Gehieneko ilara (m)	15	13	1	22	1	
	Geldialdi kopurua	5	3	1	2	16	




Egungo trafikoaren eskema: Tala Auzoa



Tala eremuko trafikoaren eskema aldaketa beharrezkotzat jotzen dugu. Helburu hauek lortu nahi ditu:


- Tonpoi bideko noranzko bikoitza saihestea, neurria dela eta puntu konplexua baita.
- Noranzko bakarrekoak bilakatu diren eremuetan, irabazitako erraila aparkalekuak egiteko berreskuratu. Diagnosian jada defizitariotzat hartzen zen jada eremua.
- Auzora sartu eta bertatik irteteko eskema argia mantentzea, horretarako, irteera hilerri aldetik bultzatuz, ahal den heinean autoak pasatzea eragotziz eremu hauetan: ospitala, anbulatorio berria, egoitza eta Karmeldarren ikastetxe eremua.

Egungo trafikoaren eskema: Tala Auzoa



- Tala auzoan sortutako aparkalekuen xehetasuna.
- Garrantzitsua da atzeraka baterian aparkatzeko egindako proposamena nabarmentzea; eragiketa hori herriko ahalik eta leku gehienetan egitea gomendatzen dugu. Aparkaleku mota horrek abantaila hauek ditu:
 - Irteera ikuspegi gehiagorekin egiten da; izan ere, hori da arrisku handieneko unea eta, beraz, segurtasuna areagotzen da.
 - Toki libreen bilaketak, alde batetik, bidea lasaitzea dakar eta, bestetik, gure atzetik doazenek une oro ikustea egitera goazena.
 - Ilarako aparkamenduetan horrela egiten da.

Egungo trafikoaren eskema: Kasino biribilgunea




2009ko maiatza

Bermeoko Mugikortasun eta Aparkaleku Plana. Proposamenak. 2. azterketa.


- Bermeoko ardatzeko trafikoa hobetzeko proposatutako beste gomendioa Kasinoko biribilguneke errailak pinturarekin egokitzea da; errail bakoitzak nora eramaten duen argi jarritz.
- Horrela, biribilguneke sarreran bertan sartutako ibilgailuen noranzkoaren ezjakintasunak sortutako atzerapenak saihestuko dira.

Egungo trafikoaren eskema: 1. proposamena



- Atalde eta Bizkaiko Jaurerria kaleetako noranzkoa aldatzea ere proposatu da; izan ere, egungo Ataldeko irteerak ikuspen-arazoak ditu Aritzatxu bidearekin egiten duen bidegurutzean.
- Era berean, Atalderako sarbidean erdi-biribilgunea eraikitzea planteatu da. Bakiotik datozen ibilgailuei soilik eragingo lieke. Egun bada udalak egindako proposamena puntu horretan biribilgunea jartzeko eta zentzua izango du eremuko etxebizitza berri guztiak egitean.
- Planteatu den beste aldaketa Arresi – Bizkaiko Jaurerria kaleen arteko bidegurutzean dago, Galerna tabernaren pareko gatazka-mugimenduak eragozteko.


Egungo trafikoaren eskema: 2. proposamena




- 2. Proposmena lehenengoaren antzekoa da helburuei dagokionez. Kasu horretan Matxitzako bidetik eta Arresiko erdiguneko noranzkoak aldatzen dira, helmuga ezberdinetako trafikoa banandu eta autoak kaleetan barrena ibiltzea saihesteko.
- Herriko eremuetarako sarrerak eta irteerak zehazteko modua da.

Egungo trafikoaren eskema: 3. proposamena

- 3. Proposamena bigarrenaren antzekoa da helburuei dagokionez, baina Atalde eta Bizkaiko Jaureria ardatzeko aldaketa guztiz osatzen da.



Saihesbidea amaituta



- Etorkizuneako amaierako eskema gisa, saihesbidea amaitu ondoren, 1. proposamena gordetzea proposatzen da eremu hauetako noranzko-aldaketekin: Artieda-Ondarraburu-Erreñezubi eta Askatasun bidea.
- Proposamen horren xedea Lamera, Erreten eta Erribera arteko lotura-gunean ibilgailu gutxiago ibiltzea da, horretarako, sarbidea Artiedatik zabalduz.
- Aurrekuenaga kalea oinezkoentzat jarriko litzateke, horrela, Erreten parkearen eta Lameratxiki eremuaren arteko oinezkoen pasabideko ikuspen mugatuari irtenbidea emango litzaioke.
- Askatasun bidearen hasierako noranzko bikoitza Trake kaleraino luza daiteke, Erribera enparantzak azkenean izango duen eginkizunaren arabera.




Aparkalekuaren kudeaketa



Egoiliarrentzako aparkalekuak

Gaueko zenbaketako plazen balantzea (negatiboan eskaintza gainean, defizita positiboan): **guztira 352 plazako defizita**, erabilitako datuen arabera.



- 2008ko urrian Bermeon egindako gaueko balantzean aparkaleku plazen defizit handieneko eremuak hartu ziren kontuan.
- Aparkaleku beharra → legez kanpo aparkatutako ibilgailuak ken hutsik daduen aparkaleku plazak: **352**.
- Ikus daitekeen moduan, gaueko balantze okerrean duten eremuak hauek dira:
 - San Andres
 - Tala
 - Itxasbegi - Kurtzio

Egoiliarrentzako aparkalekuak




■ Aurreko grafikoan azaltzen den moduan, aparkaleku gutxien duten eremuak dira: San Andres, Tala, Itxasbegi, Kurtzio eta Zarragoitxi.

■ Hori dela eta, Udalak egoiliarrentzako aparkaleku politika berriak ezarri nahi baldin baditu, eremu horietan egin behar luke, horko eskaera potentziala dela eta.

■ Hemen atxikitako grafikoan aparkalekuak jar daitezkeen edo lehendik daudenak hobetu daitezkeen hainbat eremu azaltzen dira (adibidez, hilerrian); lursailen jabetzaren berri izan gabe eta eragiketaren konplexutasun tekniko-ekonomikoaren ezjakintasunetik hitz egiten da, betiere.

Egoiliarrentzako aparkalekuak



Bestalde, Itxas-Ganeko futbol zelaiaren eta hilerriaren aldameneko aparkalekua berriro urbanizatzea proposatzen da. Orain bertan dagoen aisialdiko eta jolaserako eremua aldameneko sorora eramango litzateke.

Neurri horri esker, aparkalekuan 385 plaza lortuko lirateke.

Ikus daitekeen moduan, aurrez gomendatu dugun bezala, aparkalekuko plazak atzerantz sartzeko moduan jarri dira.

Bermeoko sarreretan behar bezalako seinaleztapena jarritz gero, bisitariak puntu horretara bidera daitezke.


Egoiliarrentzako aparkalekuak



- Etorkizunean egingo den San Andreseko aparkalekuak Bermeoko aparkalekuen defizit handieneko eremuari irtenbidea emango dio.
- Hori horrela, aukera horri ahalik eta probetxu gehien ateratzeko gomendioa egiten dugu; solairuan plazak eraikiz eraikin txiki modura, ahalik eta aparkaleku gehien jartzeko.
- Hornikuntza berri horiek hurbileko eremuetako urbanizazioa hobetzeko aprobetxatu behar lirateke; espaloi zabalagoak eta ertzetan belarriak jartzeko.
- Eragiketa horiek beti ekartzen dute bideko plazen galera, baina galera sortutako plaza kopurua baino askoz ere mugatuagoa da beti.

- Eguneko aparkamenduari dagokionez, diagnosian egindako lan zabaletik ateratako ondorio nagusietako bat gogoratu nahi genuke: Bermeoko kaleetako aparkaleku plazak erabiltzen dituzten erabiltzaile gehienak herrian bertan bizi diren egoiliarak dira.
- Bermeo, Gernika, Mungia eta antzeko gertuko beste herri batzuk ez bezala, ez da inguruko herrietako helmuga, eta ez da eskualdeko herri nagusia. Hori dela eta, une honetan ez dugu uste komenigarria denik aparkalekua arautzeko OTA moduko neurriak ezartzea kalean, erabiltzaileen gehiengoa bertako egoiliarak baitira.

**Plazen okupazioa. Aparkatutako ordua
Bermeon egindako galdeketa**







Zamalanen kudeaketa



Zamalanetarako plazak



Ostalaritza: tabernak/kafetegiak eta jatetxeak



Merkataritza: txikizkako merkataritza

- JEZek emandako informazioari esker, eraikinetako fatxadetan biltzen diren negozio kopurua eta haien jardura ekonomiko ezagut ditzakegu.
- Negozioetako jardura ekonomikoak hiru taldetan sailkatu ditugu, haien hornikuntza-beharren arabera:
 - Ostalaritza: jatetxeak, tabernak eta kafetegiak, oro har.
 - Galkorrak: elikagaiak saltzen dituzten saltokiak.
 - Merkataritza: elikagaiak ez diren produktuak saltzen dituzten dendak (zapata, arropa... dendak).

Zamalanetarako plazak

Kalea	Galkorra	Ostalaritz	Merkataritz	Erreserba zam.	Egungo zam.	Plazak guztira
AKURIO KONTRAMAI SU CL			2	0		13
ALDATSETA CL	2		13	3		5
ALMIKE BO	1	3	2	2		
ALMIKE CL	1		4	1		26
ANASAGASTI TAR TEODORO CL	2			1		29
ANDER DEUNA BO			1	0		
ANDER DEUNA CM	3			1		80
ANDRAMARI CL	1	1		1		9
APIOZA CL				0		
ARANA GOIRI TAR SABINEN PZ	1	1	5	1		12
AREILZA CL			2	0		5
ARMENDURUA CL			1	0		
AROSTEGI CL	2	3	3	2		
ARRESI CL	3	3	4	2	2	122
ARRESKUENAGA CL			1	0		12
ARTIEDA TAR IÑIGO CL			9	2		12
ARTIKE BO		4	2	2		
ARTZA CL			1	0		
ASKATASUN BIDEA CL	10	8	11	7	4	107
ATALDE CL	1	3	7	2		122
AURREKOETXEA CL	2	3	3	2		
BIDEBARRIETA CL	2			1		
BIZKAI BURU CL			2	0		80
BIZKAIKO JAURERRIA CL	5	3	15	5	6	121
DOLARIAGA CL		1	5	1	6	85
DONIENE CL		1	2	1		
ERREMEDIO CL	1	2	14	3		7
ERREÑE-ZUBI CL	5		3	2		77
ERTZILLA CL			1	0		
ESKINARRUAGA CL			4	1		
ESKOIKIZ CL	1	3	6	2		5
ESPARRU CL			3	1		55
ETXEBARRIA TAR KRESENTZI CL	3		10	2		
EUPEME DEUNA CL		2		1		6
GARABILLA TAR JOSE CL		1		0		13
Gonzalo Nardiz Enparantza			3	1		
HURTADO DE MENDOZA KARDENALAREN CL		2		1		
IBARLUZEA TAR KOSME CL		2		1		
INTXAUSTI CL	4	5	11	5		
IPARRAGIRRE CL				0		
IRAKASKINTZA CL				0		12
ISPIZUA TAR SEGUNDO CL			6	1		12
LAMERA PE	2	2	2	2		56
LAMERA TXIKI PZ	1	1		1		
LOPE DIAZ DE HARO CL		9	2	3		
MAÑU BO		4		1		
MATXITXAKO AV	1		1	0		250
SANTAMAÑE CL	3	1	3	2	4	12
TALAKO ANDRA MARI GP	3			1		108
TELLAETXE TAR JOSU CL			2	0		17
TONPOI BIDEA CL	2	1		1		61
Trake Kalea			5	1	3	20
ZUBIAURTAR KEPA CL	14	15	6	5	5	63
	76	69	186	73	30	1614


Bermeoko hainbat kaleren adibidea. Orain dagoen plaza kopurua eta proposatutakoa oso antzekoa da kale horien kasuan.

- Jarduera ekonomikoak hiru taldetan banatu ondoren, eraikin bakoitzaren fatxadari erreserbatu beharreko plaza kopurua, gaitutako aparkalekuekin, kalkulatzeko formula aplikatzen da:

$$PR = 1.5*(P/6)+2*(H/6)+C/6$$

- PR erreserbatu beharreko plaza kopurua, P produktu galkorrek saltzen dituen establezimendu kopurua, H ostalaritzako establezimendu kopurua eta, azkenik, C merkataritza establezimendu kopurua izango da. Horiek guztiak eraikin beraren fatxadari kokatuta eta egun aparkaleku plazak izanik.
- Ariketa horrekin zati bakoitzeko zamalanetarako beharrezko plazen hurbilketa egin daiteke, baina behin-behineko esleipena kasu bakoitza aztertuz egin behar da.
- Hortaz, zamalanetarako plazen banaketa fatxada bakoitzeko beharren arabera egitea proposatzen da.
- Horri esker dendak plaza horietatik gertuago egongo dira, baina era berean, zerbitzu horretarako aparkaleku gehiago erabiliko dira eta, beraz, zamalanetarako plazen funtzionamendua mugatzea proposatzen dugu.

Zamalanetarako plazak



- Kontrol-sistema Bartzelonan erabiltzen denaren antzekoa izan daiteke, hau da, ibilgailua iritsitako ordua islatzen duen diska. Bitxia dirudien arren, hori zaindu eta betetzeaz arduratzen diren langileek kamera digitala erabiltzen dute ibilgailuaren egonaldia frogatzeko une jakin batean.
- Ordu-tegi-mugek mesede egiten diete, bai merkatariei, bai bezeroei; izan ere, merkantiaren sarreraren eragozpena saihesten dute merkataritza establezimenduaren bezero gehieneko orduetan. Horrez gain, merkatariek araua betetzeko eska diezaiekete hornitzaileei, "Udala baita behartzen duena".


- Ondasunen eta merkantzien garraioa ezinbestekoa da gure herrietako eta hirietako bizitza ekonomikorako. Hala eta guztiz ere, kontrako aldeak ere baditu, eragozpenak sortzen ditu eta hainbat kasutan bizitza ekonomiko eta soziala baldintza dezake.
- Alor horretako jarduera-politikari, oro har, honakoa finkatuz (eta ondoren zaindu, betetzen dela bermatzeko) ekiten zaio:
 - - ordu-tegi zorrotza goizeko 8etatik 12etara eta arratsaldeko 4etatik 6etara
 - - gehieneko tonajeak
- Zamalanak oinezkoentzako eremuetan nahiz bideko zati normaletan egingo lirarteke. Etorkizunera begira, hainbat adibide proposatzen dira, hala nola kargaren zatiketa eta tonaje gutxiagoko ibilgailuetara pasatzea edo gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak erabiltzea (herrialde askok finkatu du isurtzen ez duten ibilgailuekin banaketak egiteko legeri espezifikoak).
- Alor horretako jarduera gisa, tokiko merkataritza-establezimenduek azalera handiko merkatalguneekin leihatze praktika aipa daiteke, etxera eramateko zerbitzua sustatuz. Udalak tokiko merkataritza gorde eta laguntzeko duen interesa dela eta, interesgarria izan daiteke etxera eramateko zerbitzua sustatzeaz gain, zerbitzua sendotzea eta tokiko enpresen koordinazioa bultzatzea.



Alde Zaharraren kudeaketa



Alde Zaharra




Bermeoko mugikortasunari buruzko azterketa aprobetxatuz, Udalak Bermeoko Alde Zaharra itxi eta oinezkoentzako jartzeko ekimenaren alde egin nahi dugu.


Oinezkoen gain eremu horretarako sarbidea izango duten ibilgailuak, Udalak finaktutako ordutegietan eta egonaldien kontrol zorrotzarekin, hauek izatea da gure planteamendua: eremuan aparkaleku plaza duten egoiliarak, zamalan laburretarako egoiliarrak eta merkataritzako zamalanetako ibilgailuak.

Alde Zaharraren kudeaketa. Jarduerak


■ Bermeoko JEZen jardueren kokapena azaltzen duen argazkiarekin, oinezkoentzako bihurtu nahi dugun eremuan metatzen den merkataritza guztia erakutsi nahi dugu.



■ Bermeoko JEZaren merkataritza-sektorea





Oinezkoen irisgarritasuna



Hemen atxikitako grafikoetan Bermeon oinezkoentzako bihurtu nahi den erdiko eremutik beste puntuetara joateko oinezkoak behar duen denbora agertzen da.

10-15 minutuko tartean ia Bermeoko herrigune guztia egin daiteke oinez. Horrek oinezkoen mugikortasunaren garrantzia azaltzen du eta, bide batez, hura babestu eta sustatzeko hartuko diren neurriak justifikatzen ditu.

Alde Zaharraren kudeaketa – Proposamenaren sintesia



- Sarrerak eta irteerak kontrolatzeko bi aukera proposatzen ditugu:
- TAG txartelak: ibilgailuek mugatutako eremuan egiten duten egonaldiaren kontrol zehatza egiteko programatuta egongo dira. Alde Zaharreko erabiltzaile guztiei (egoiliarrak eta hornitzaileak) banatzea zaila izan daitekeenez, egoiliarrei soilik ematea gomendatzen dugu.
- Ordutegia kontrolatzeko diska: leku askotan haren erabilera zabaldua dagoen arren, Udaltzaingoa kontrol zorrotzagoa gauzatzea eskatzen du. Zamalanetako ordutegian atek zabalik dauden kasuetarako gomendatzen da sistema hori.

Egonaldiaren denbora kontrolatzeko proposamena

- **EGOILIARRAK – TAG txartelak:** txartel horiei esker ibilgailuak mugatutako eremuan zenbat denbora ematen duen zehatz kontrola daiteke. Alde Zaharreko erabiltzaile guztiei (egoiliarrak eta hornitzaileak) banatzea zaila denez, egoiliarrei soilik ematea gomendatzen dugu.
- **HORNITZAILEAK – Diska:** ordutegia kontrolatzeko diska Alde Zaharreko hornitzaileek behar duten denbora kalkulatzeko irtenbidea izan daiteke.

KOLEKTIBOA	ORDUTEGIA	GEHIENeko EGONALDIA
	<i>Astelehen Ostiral</i>	
<i>GARAJERIK GABEKO EGOILIARRAK</i>	<i>Eguneko 3 sarrera.</i>	<i>20 minutu</i>
<i>GARAJEEN JABEAK</i>	SARBIDE LIBREA	EZ DA EGOKIA
<i>HORNITZAILEAK</i>	<i>07:00 – 12:00</i>	<i>30 minutu</i>
<i>MERKATARIAK</i>	<i>07:00 – 12:00 / 17:00 – 18:00</i>	<i>30 minutu</i>
<i>OSTALARITZA</i>	<i>07:00 – 12:00</i>	<i>30 minutu</i>
<i>GREMIOAK</i>	<i>07:00 – 12:00 / 17:00 – 18:00</i>	<i>30 minutu</i>
<i>ERABILITZAILE BEREZIAK</i>	<i>Eguneko 3 sarrera</i>	<i>20 minutu</i>


Bermeoko oinezkoentzako eremuari buruzko Ordenantza Arautzaileak onartutako ordutegia



Garraio publikoa




Garraio publikoa: Gernika –Markina LPPa




- Gernika- Markina LPPak garraio publikoa errepide bidez hirigunerantz lotzeko apustua islatzen du; Solluben zehar, tunelak eraikiz. Egungo ordutegiak nabarmen hobetuko lirateke.
- Bizkaibusek Sollubetik egin berri duen loturak Bermeo eta Bilbo lotzen zituzten lineetako bidaiariak batetik bestera aldatzea ekarri du. Hori hein handian Mungiako korridoreari esker hiribururako sarbidean denbora gutxiago behar izateari zor zaio.

A3515 linearen bilakaera Bilbo - Amorebieta-Etxano - Gernika - Bermeo



2009ko maiatza


A3527 linearen bilakaera Bilbo - Mungia - Bermeo (autopistatik)



Bermeoko Mugikortasun eta Aparkaleku Plana. Proposamenak. 2. azterketa.


Garraio publikoa: Gernika –Markina LPPa

- LPPak, horrez gain, etorkizuneko hedapena eta Bermeoko Euskotren estazioaren birmoldaketa, aldageltoki moduan, azaltzen du; baita bide-sarearen hobekuntza ere bidea Murueta eta Muxika bezalako eremuetan banatuz. Horrek garraio publikoaren denbora eta irisgarritasuna hobetzea ekarriko du, horrela, ibilgailu pribatuarekin lehiakorra izan dadin.



Bizikletaren eginkizuna

Bidegorria: eskualdeko sarea



Bermeoko mugikortasunari buruzko azterketaz baliatu nahi dugu bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzeko. Herriaren eta eskualdeko gainerako lekuen arteko beste lotura modu gisa bultzatu nahi dugu.


Horrekin lotuta, Bizkaiko Foru Aldundiak Busturialderako prestatutako Plan Zuzendari Ziklagarriko Bidegorri Sarea eta hark Bermeorekin duen lotura erakutsi nahi dugu.

Bizkaiko beste eskualdeetan gertatzen den bezala, Bizkaiko Foru Aldundia herrien arteko zatiak eraikitzeaz arduratzen da, baina parte hartzen duten herrien ardura da haien hiri-bilbearen barruko zatiak diseinatzea.



Bidegorria: udal sarea

- Dagoen sarea
- - - Aldundiak proiektatutako sarea
- Proposatutako sarea



2009ko maiatza

Bermeoko Mugikortasun eta Aparkaleku Plana. Proposamenak. 2. azterketa.

- Eskualdeko sarerako sarbidea Mundakatik egiten da eta Bermeoko Euskotren geltokian amaitzen da.
- Bermeoko orografia dela eta, zaila da egun dagoen sarea proiektatutakoarekin lotzea. Hala ere, komenigarria iruditu zaigu bi sareak Alde Zaharrean zehar (jada oinezkoentzako) lotuko dituen linea planteatzea.
- Hemen atxikitako argazkian ikus daitekeen moduan, proposatutako sareak Arene eta Itsas Gane kirol-eremuak lotu, Talako Andra Mariren atzealdeko eremutik igaro eta Talako zuhaiztia zeharkatuz ospitalearen atzealdetik Alde Zaharrera heltzen da.
- Sare horrek aisia-eskaerari erantzungo lioke, ohiko kudeaketetarako eskariari baino.

Bidegorri-sarea egiteko irizpideak



Ibilgailu baten lekuan 12 bizikleta utz daitezke.



2009ko maiatza



Bermeoko Mugikortasun eta Aparkaleku Plana. Proposamenak. 2. azterketa.

- Irizpide orokor gisa bizikletaren erabilerarako beharrezko azpiegituren lehentasuna –bizikletentzako bideen aurretik- azpimarratu nahi dugu, nagusiki bizikletak uzteko tokiak (Bermeoko hainbat puntutan jada badaude).
- Kopenhagen hasi eta hiri askotara hedatu da antzeko esperientzia. Udalak jarritako bizikletak hirian zehar banatzen dira eta erabiltzeko txanpona sartu behar da. Ondoren, bizikleta itzultzean, txanpona berreskuratzen da. Neurri hori baliagarria da trenarekin eta autobusarekin konbinatuz gero.
- Duela gutxi Gasteizen antzeko zerbait egiten saiatu dira. Hiri guztian zehar bizikletak mailegatzeko zerbitzua jarri dute. Horretan ahalegindu dira Bilbo, Getxo, Logroño, Bartzelona... hirietan ere.
- Donibane Lohizunen aparkalekuetan bertan eskaintzen dira hiriaz gozatzeko bizikletak. Zerbitzu hori bera hiri askotako hoteletan eskaintzen da.

Bermeoko bidegorria: proposamena

2-16: Glorieta con pista acera-bici






FIG IV.2-15: Glorieta con carril-bici



Glorietas con vías ciclistas segregadas

FIG IV.4-3: Atajo para el giro a la derecha



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia


- Hemen bidegurutzetan eta biribilguneetan bidegorriak egiteko zenbait adibide tekniko aurkezten ditugu. Adibideak Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako "Bizikleta garraiobide gisa" lanetik ateratakoak dira.
- Hainbat bidegurutzetan txirrindularien segurtasuna areagotzea da xedea.



Esparru publikoak



Espazio Publikoak



- Oinezkoen ardatzek honelakoak izan behar dute:
 1. Baliagarriak, bidaien jatorriak elkarrekin lotzen dituzte. Bizitegi auzoen eta autobus-edo tren-geltokien, eta gune sozialen arteko loturak oinezkoentzako.
 2. Erakargarriak (erabiltzeko gogoia ematen dute), bertatik igarotzeko ez ezik, geratzeko eta gozatzeko lekuak ere izango dira.
 3. Ekintzen eta giroaren sortzaileak: dendak, tabernak, umeak...
 4. Erosoak, zabalak, babestuak, hornituak, seguruak,...
- Puntutxoetako marrek, txosten honetan adierazitako ezaugarriak (erosoak, seguruak, jarraituak...) betetzeko lehentasuna duten ibilbideak markatzen dituzte.

Espazio Publikoak


- Atal honetan, hauxe lortu nahi da: espazio publikoetako diagnostikoa egitean, azterketarako irizpideak ematea. Hau mugikortasunari buruzko plana bada ere, gure ustez, espazio publikoen politika kritikoa da. Arrazoia ez da kotxearen aurka jotzea, mezu garrantzitsuena udala hobetu beharra da.
- Onarrizko galdera biren erantzunak ditugu abiapuntu:
 - Nor da espazio publikoen erabiltzaile?
 - Zein jarduera egin daiteke espazio publikoetan?
- Aurreko bi puntuak identifikatu ondoren, asmoa, ingurua erabiltzaile horientzat "diseinatzea" izango da, jarduera horiek garatzeko.
- Kontuan hartu beharrekoaren zerrendak (espazio publikoen kalitatearen egiaztapenean), espazioaren azterketaren ikuspegi matriziala dakar.
- Aplikatu eta aztertu ondoren, diagnostiko bat lortuko da, eta diagnostiko horren bidez, espazio publikoetan egingo diren jardueri buruzko gomendioak emango dira.

Material honen jatorria : Jan Gehl Architects.


Towards a fine City for People.

London 2004.


Nor da espazio publikoaren erabiltzaile?




1.- Ohizko erabiltzaileak: herriko alde bakoitzean bizi eta lan egiten dutenak.



2.- Bisitariak: Zerbitzuren edo ekipamenduren bat (denda, bankua...) erabiltzera joaten direnak.



3.- Ibiltariak: Zona bakoitzetik oinez igarotzen direnak.



4.- Aukerako bisitariak: Sortutako espazioak erakarrita bertaratzen direnak, aire zabalean goatzera edo bertatik ibiltzera.




5.- Jarduera jakinek erakarritako bisitaria: ekitaldi berezi batera joaten dena.


- Gune publiko baten bisitari moten ikuspegia eman nahi da.
- Espazio publikoa nork erabiliko duen badakigu, errazagoa izango da erabiltzailearentzat diseinatzea.
- Kaleen diseinuak, kaleetara erraz iristea eta gozatzea ahalbidetuko du.

Material honen jatorria: Jan Gehl Architects. Towards a fine City for People. London, 2004.

Zein jarduera egin daiteke espazio publikoetan?



1.- Eguneroko joan-etorriak: Ohiko "nondik" "nora" joate hori.




2.- Eguneroko igarotzeak: Ohiko zonatik igarotzea.



3.- Egonaldi laburrak: espazio publikoa laneko atsedendietan edo autobusa itxarotean erabiltzea. Ustekabeko topaketak sor daitezke.



4.- Jolas jarduera: espazio publikoa atsedent hartzeko eta jolasteko erabiltzea.




5.- Aurrikusitako jarduera: Bideko "ikusle" izatea.

- Espazio publikoen erabilerak, berezko arrazoi edo xede bat dauka.
- Jarduera nabarmenak, ezkerrean ematen diren taldeetan sailkatu dira, adibide edo eredu bezala.

Material honen jatorria: Jan Gehl Architects. Towards a fine City for People. London, 2004.

Espazio publiko baten kalitatea egiaztatzea.




1.- Babesa ibilgailuen trafikoaren aurka:

- Bide-istripuak.
- Kutsadura, keak, zaratak.
- Ikuspena.



2.- Babesa gaiztakeri eta indarkeriaren aurka (segurtasunaren hautematea):

- Kale girotsua (jendez beteta).
- Zaintza pasiboa.
- Funtzioak espazioan eta denboran konbinatu.



3.- Babesa eguraldiko eragile desatseginen aurka:

- Haizea.
- Euria / elurra.
- Hotza / beroa.
- Kutsadura.
- Zarata, hautsa, gehiegizko argia (itsualdiak).

2009ko maiatza

Bermeoko Mugikortasun eta Aparkaleku Plana. Proposamenak. 2. azterketa.

Espazio publiko baten kalitatea, aurkezten diren 14 alderdien baremoaren bidez egiaztatu daiteke.

Zerrenda hau, oinezkoen inguruaren kalitatearekin lotuta dago zuzenean.


Espazio publiko baten azterketak, aurkeztutako 14 alderdiei "BAIETZ" esaten badie, % 100ean kalitatedun espazio publikoa izango da.

Alderdi horiek hiru kategoria hauetan antolatzen dira:

- **Babesa.**
- Erosotasuna.
- Gozamena.


Material honen jatorria: Jan Gehl Architects. Towards a fine City for People. London, 2004.

Espazio publiko baten kalitatea egiaztatzea.




4.- Bertatik ibiltzea erraza da:

- Ibiltzeko tokia.
- Irisgarritasuna.
- Fatxada interesgarriak.
- Oztoporik eza.
- Kalitatezko gainazalak.



5.- Bertan geratzeko gogoia ematen du:

- Egoteko gune zehaztuak.
- Ertz erakargarriak: "Fatxada efektua".
- Euskarri izan daitezkeen edo hurbil egoteko objektuak.



6.- Esertzeko aukera:

- Esertzeko toki egokiak.
- Eserlekuak.
- Egoteko baldintza egokiak: ikuspegi ederrak, haizetik edo eguzkitik babestut etab.

Espazio publiko baten kalitatea, aurkezten diren 14 alderdien baremoaren bidez egiazta daiteke.

Zerrenda hau, oinezkoen inguruaren kalitatearekin lotuta dago zuzenean.


Espazio publiko baten azterketak, aurkeztutako 14 alderdiei "BAIETZ" esaten badie, % 100ean kalitatedun espazio publikoa izango da.

Alderdi horiek hiru kategoria hauetan antolatzen dira:

- Babesa.
- **Erosotasuna.**
- Gozamena.


Material honen jatorria: Jan Gehl Architects. Towards a fine City for People. London, 2004.

Espazio publiko baten kalitatea egiaztatzea.



7.- Espazioaren kontrol bisuala:

- Objektuekiko distantzia.
- Zona itsurik eza.
- Ikuspegi interesgarriak.
- Argiztapena (iluntzean).



8.- "Entzuteko" eta "mintzatzeko" aukera:

- Ingurune-hotsaren soinu-maila txikia.
- Komunikazioa sustatzeko egoki antolatuta dauden egoteko lekuak.



9.- Jolas- eta olgeta-jarduerak egiteko aukera:

- Jarduera fisikoak, jolasak eta abar egin daitezke bertan.
- Aldi baterako jarduerak: azoka txikiak, jaialdiak...
- "Gizarte-elkarreragina" sustatzen duten elementuak.

Espazio publiko baten kalitatea, aurkezten diren 14 alderdien baremoaren bidez egiazta daiteke.

Zerrenda hau, oinezkoen inguruaren kalitatearekin lotuta dago zuzenean.

Espazio publiko baten azterketak, aurkeztutako 14 alderdiei "BAIETZ" esaten badie, % 100ean kalitatedun espazio publikoa izango da.

Alderdi horiek hiru kategoria hauetan antolatzen dira:

- Babesa.
- **Erosotasuna.**
- Gozamina.

Material honen jatorria: Jan Gehl Architects. Towards a fine City for People. London, 2004.

Espazio publiko baten kalitatea egiaztatzea.



10.- Eguneko eta gaueko jarduerak:

- Hiri aktiboa, eguneko 24 orduetan.
- Egunean zehar, era askotako jarduerak egin daitezke aldi berean.
- Leihoak argitzea (bizitegi-zonetan).
- Kalearen erabilera mistoa.
- Gizakiaren neurriko argiztapena.



11.- Bertan egotera bultzatzen duten baldintzak, urtaroen arabera:

- Gabonetako apaingarriak, patinetez ibiltzeko aukera etab., urtaroen arabera.
- Babesa Kanpo-agenteen aurka, urtaroen arabera: babesa eguzki, euri edota elurrarekiko.
- Argiztapen egokia, urtaroen beharretara egokitua dagoena.

Espazio publiko baten kalitatea, aurkezten diren 14 alderdien baremoaren bidez egiazta daiteke.

Zerrenda hau, oinezkoen inguruaren kalitatearekin lotuta dago zuzenean.


Espazio publiko baten azterketak, aurkeztutako 14 alderdiei "BAIETZ" esaten badie, % 100ean kalitatedun espazio publikoa izango da.

Alderdi horiek hiru kategoria hauetan antolatzen dira:

- Babesa.
- **Erosotasuna.**
- Gozamena.


Material honen jatorria: Jan Gehl Architects. Towards a fine City for People. London, 2004.

Esparru publikoaren kalitatea frogatzea.




12.- Eskala:

- Eraikinen eta esparruen eskala gizakien neurrietara egokitu behar da, zentzumenen bidezko esperientzia bultzatuz.
- Eskala-irizpide bera aplikatu behar da hiri-altzariei dagokienez.



13.- Tokiko klimaren alderdi positiboez gozatzeko aukera:

- Eguzkia / itzala.
- Giro epela / hotza.
- Brisa / aireztapena.



14.- Kalitate estetikoak:

- Kalitatea altzarien diseinuan eta xehetasunean, zoladuren egituran eta abar.
- Bistak.
- Zuhaitzak, landareak, iturriak eta abar.

Esparru publikoaren kalitatea frogatzeko aurkezten den 14 alderdiko barometroa erabil daiteke.

Zerrenda hori zuzenean lotuta dago oinezkoentzako eremuaren kalitatearekin.

Esparru publikoaren azterketa amaitzean aurkeztutako 14 puntuetan "BAIEZKOA" lortzen denean % 100eko kalitateko esparru publikoa izango dugu.

Alderdi horiek hiru kategoriatan banatzen dira:

- Babesa.
- Erosotasuna.
- **Gozamena.**

Hemendik hartutako materiala: Jan Gehl Architects. Towards a fine City for People. Londres 2004.

Oinezkoen ardatzak... eta bizi-kalitatea

- Bermeoko trafikoaren banaketako datuetatik argi ikusten da oinezkoen mugikortasuna handia dela, batez ere, barruko mugikortasunari dagokionez. Nahiz eta mugikortasun hori herriaren erakargarri nagusietako bat izan, ez dago mehatxuetatik salbuetsita; hala nola motorrezko barne-bidaiak areagotzea. Hori dela eta, beharrezkoa da politika espezifikoak finkatzea hori babestu eta sustatzeko.
- Oinezkoentzako trafikoko politika hiri-ereduan hainbat eremu sartzera zuzenduta egongo litzateke, horretarako, kontuan hartuz trafikoko alderdiak (ibilgailuenak, nahiz bizikletenak), alderdi urbanistikoak, diseinua eta abar.
- Oinezkoen mugikortasuna babestu eta sustatzeko funtsezko elementua konexioen hobekuntza litzateke. Honen bidez lortuko litzateke:
 - Oinezkoentzako trafiko-sistema koherentea sortzea, oinezkoentzako ibilbideak eta oinezkoen lehentasunezko ardatzak sortuz.
 - Konexio geldo, nahasgarri eta arriskutsuak eragiten dituzten semaforo-sekuentziak konpontzea.
 - Dauden esparru publikoen iragazkortasuna ahalik eta gehien sustatzea.



Esparru publikoetako jarduerak

Beharrezkoak:

lanera, ikastetxera, erosketak egitera, medikuarengana, kudeaketak egitera...joatea.

Hautazkoak:

paseatzea, korri egitea, kontzertuetara joatea, partiduetara joatea...

Sozialak:

bisitak eta bilerak, besteei behatzea, manifestazioak...



Hiri-kalitatearen ezaugarriak:

- Oinez mugitu eta leku guztietan gelditzera dei egiten du:
 - Erosoa, elementuetatik babestua, bankuak, terrazak, oinezkoen ardatz jarraituak, egunean zehar etengabeko jarduera duten fatxadak, kalitatezko hiri-altzariak eta abar.
- Ustekabeko topaketak bultzatzen ditu
- Kanean elkarriketak izatea, gelditzea eta hiriko bizitza ikustea ahalbidetzen du:
 - Hots-maila baxua, trafiko askoko ardatzetatik urrun, txoko eta plazak, erakusleihoak...

Hiriko bizitzako aktoreak:

- Egoiliarrak eta langileak
- Merkataritzako bisitariak eta bezeroak, zerbitzuak, ekipamenduak
- Turistak eta ikuskizun berezietara bertaratuak

Oinezkoen fluxu eta egonaldi estatikoen iraupen eta motaren neurketa



Esparru publikoei buruzko politika

IRIZPIDEAK

Geroz eta pribatizatuago dagoen mundu honetan, hainbat hiritako esparru publikoak garrantzia irabazten ari dira. Egoiliarrek, hain zuzen ere, gogotsu erantzuten dute eremu komunitario horien inguruan hiriko bizitzan parte hartzeko eta ibiltzeko sortzen diren aukera berri horien aurrean. Emaitza egoiliarrek hiriaz jabe daitezzen gonbidapena egitea da, horretarako, autoari emandakoari mugak jarritz eta herritarren oinarrizko beharrak asetzeko jarduerak sustatuz: bilerak, hirian egotea eta hiriko partaide sentitzea.

Jan Gehl

Hiriko esparru publikoek hainbat funtzio dituzte:

- Nortasuna eta lotura sortzen dute
- Haurrei hiriko partaide izateko loturak sortzen laguntzen diete
- Talde sozialen bizikidetzaz errazten dute
- Bake eta edertasun oasietan eraikitzen dira, hiri dinamikoak berezkoa duen zaratatik isolatzeko ahaleginean
- Ezinbestekoak dira hiritarraren bizitza pribatizatzeke joera dagoen une historiko honetan; herritarrak bere etxean, kaletik urruntzeko joera: telebista, kable bidezko telebista, bideoklubak, Internet, autoa garraio "komunaren" ordez, eta abar.



- **1. Gizarte-animazioa:** *Jendeak jende gehiago erakartzen du*
Gizarte animazioaren kontzeptu hori itzuli eta neurtzeko neurgailu objektibo nahiz ukiezinetan oinarritzen da; honako hauei erreferentzia egiten dieten neurgailuetan, hain zuzen ere: erabiltzaileen aniztasuna eta mota, gerta daitezkeen ustekabeko topaketen kopurua, ezezagunen arteko harremanak sortzea, erabiltzaileen adina, erabiltzaile mota eta ordutegien aldaerak, lekuak sortzen duen ongi-etorri sentipena, tokiari dagokionez herritarren harrotasuna, topaketetarako puntu gisa erabiltzea eta abar.
- **2. Erosotasuna eta Irudia:** *Egonaldiak*
Horren itzulpenak alderdi hauek jasotzen ditu: garbiketa eta osasungarritasuna, segurtasuna eta zaintza, sarbide-puntuetatik eremuaren osotasuna ikustea, hiri-altzari mota, babes klimatikoa, eguzkirantz zuzenduta eta nagusitzen diren haizeetatik babestuta egotea, plaza erabiltzen ez duten erabiltzaileak ere erakartzeko moduko sarbideak, elkarrizketak sustatzeko eserlekuak...
- **3. Irisgarritasuna:** *Sine Qua Non*
Sarbideak hiri-bilberantz zuzentzeko beharra nabarmen daiteke: oinezkoentzako pasabide eroso eta seguruak sustatuz, garraio publikoaren geltokiak jarritz, garrantzia nabarmenduz, inguruko fatxadetako jarduerekin lotuz, erabiltzaileentzako nahiz bertatik igarotzen direnentzako balio duten bide eta ardatzak ezarritz eta orientatzeko erraztasuna eskainiz ikuspegi garbiarekin batera erabiltzera dei egiteko
- **4. Jarduerak:** *Arrakastaren gako*
Jarduerak esparru publikoetako arrakastaren gako dira. Diseinu eta kudeaketa lanen batura ordezkatzen dute. Ildo horretatik, diseinuaren xedea jarduera aukera zabala garatzea da, diseinuaren unean arazoizkoak diruditenak baino are gehiago.
